

BARNE PROMOZIOAREN SARRERA MOTAKO OHIKO HAUTAKETA PROZESUA. 2022KO URRIAREN 20KO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA (2022ko AZAROAREN 7ko EHAA).

LEHIAKETA ETA EUSKARA FASEEN BEHIN BETIKO EMAITZAK ARGITARATZEKO EPAIMAHAIAREN ERABAKIA.

Izangaiek garaiz eta behar bezala alegatu eta egiaztatutako euskarazko merezimenduen eta hizkuntza eskakizunen behin-behineko balorazioa argitaratu ondoren, erabaki honen eranskinean jasotako erreklamazioak jaso ziren, horretarako ezarritako epean.

Erreklamazio horiek, 8.2 eta 8.3 oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera, aipatutako hautaketa prozesua arautzen duten oinarri espezifikoaren laugarren, bosgarren eta seigarren puntuetan ezarritakoaren arabera aztertu dira.

Ondorioz, hautaketa prozesu honetako epaimahai kalifikatzaileak izangaiek aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren aipatutako baremoen arabera, eta bilera egin ondoren, oinarri orokorretako zortzigarren eta hamabigarren puntuetan ezarritakoarekin bat etorri, epaimahaiak honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.– Lehiaketa eta euskara faseen txanda irekiko eta hala dagokioenean, desgaitasun duten pertsonen txandako deialdi espezifiko guztietako behin betiko zerrenda argitaratzea, dagozkien kalifikazioen eta puntuazio-hurrenkeraren arabera, eta erreklamazioei erantzuna.

BIGARRENA.– Zerrendak ikusgai egongo dira EHUko lan-eskaintzen atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp) argitaratzea, hautagaiek kontsulta ditzaten.

HIRUGARRENA.– 7.4 oinarri orokorraren arabera, epaimahaien erabakiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa). Erabaki honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke UPV/EHUko gerenteari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsio hori idazki baten bidez aurkeztu behar da, horretarako gaitutako UPV/EHUko erregistroetan, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen edozein lekutan ere.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan.

Epaimahaiko idazkaria